

Mundua skate baten gainean

LUKA UZABALEK 7 URTE DITU, BAINA ARRAKASTA LORTU DU SKATE MUNDUAN.



Jone Arruabarrena



Luka Uzabal, egunero patinatu ohi duen Gasteizko skate parkean. JAIZKI FONTANEDA / FOKU

2021eko apirilak 17

LUKA UZABAL, GASTEIZTARRA, 2 URTE ZITUELA, SKATE BATEN GAINEAN HASI ZEN. ORAIN 7 URTE DITU ETA ETORKIZUN ONA IZANGO DUELA DIOTE.

BERE AITA, RUBEN KITANAK, ONGI GOGORATZEN DU MOMENTU HURA:

"HARRITUTA GERATU GINEN. NATURALKI ATERATZEN ZITZAION. 4

URTEREKIN MODULUETARA IGOTZEN ZEN. 5 URTEREKIN EUSKAL HERRIKO ZIRKUITU OSOA EGIN ZUEN".

2019. URTEAN LAPURDIN, SKATE TXAPELKETA BATEAN PARTE HARTU ZUEN.

28 PARTE HARTZAILEETATIK 13. POSTUAN GERATU ZEN.

GALDERAK ERANTZUN

1. NOLA DU **IZENA** MUTIKOAK?

2. NON **BIZI** DA?

3. ZENBAT **URTE** DITU?

4. ZER **EGITEN DU** LUKAK?

5. NOLA DEITZEN DA **LUKAREN AITA**?

6. ZENBAT URTEREKIN HASI ZEN **MODULUETARA** IGOTZEN?

7. TXAPELKETAN ZENBAT **PARTE HARTZAILE** EGON ZIREN?

8. ZEIN **POSTUTAN** GERATU ZEN TXAPELKETAN?

9. NOR DA **BERRIAREN IDAZLEA**?

10. ZEIN DA **DATA**?
